*Eliminación/Reducción comisión gestión y/o depositario de IIC*
*Reducción comisión de gestión clase Cartera*

### 6. Loturadun eragiketak eta bestelako informazioak / *Operaciones vinculadas y otras informaciones*

| | BAI | EZ |
|---|---|---|
| *a.* Funtsaren ondareko partaide garrantzitsuak (% 20 baino gehiagoko partaidetza) | X | |
| *b.* Erregelamenduan egindako aldaketa txikiak | | X |
| *c.* Kudeatzailea eta gordailuzaina talde berekoak dira (BMLko 4. artikuluaren arabera) | | X |
| *d.* Balore-erosketa eta -salmenta batzuetan, gordailuzaina izan da saltzailea edo eroslea, hurrenez hurren | X | |
| *e.* Kudeatzaile edo gordailuzainaren taldeko erakunderen batek jaulkitako edo abalatutako baloreak edo tresnak erosi dira, edo horietakoren bat kolokatzaile, aseguratzaile, zuzendari edo aholkulari gisa aritu da, edo loturadun erakundeei baloreak utzi zaizkie mailegutan | | X |
| *f.* Balore edo tresna finantzarioen erosketa batzuetako kontralderdia kudeatzailearen edo gordailuzaina taldeko erakunde bat izan da, edo kudeatzaile berak edo taldeko beste kudeatzaile batek kudeatutako beste IKE bat | | X |
| *g.* Kudeatzailearen taldeko erakunde batzuek sarrerak izan dituzte, IKEak ordaindutako komisio edo gastuengatik | X | |
| *h.* Bestelako informazioak edo loturadun eragiketak | X | |

| | SI | NO |
|---|---|---|
| *a. Partícipes significativos en el patrimonio del fondo (porcentaje superior al 20%)* | X | |
| *b. Modificaciones de escasa relevancia en el Reglamento* | | X |
| *c. La gestora y el depositario son del mismo grupo (según artículo 4 de la LMV)* | | X |
| *d. Se han realizado operaciones de adquisición y venta de valores en los que el depositario ha actuado como vendedor o comprador, respectivamente* | X | |
| *e. Se han adquirido valores o instrumentos financieros emitidos o avalados por alguna entidad del grupo de la gestora o depositario, o alguno de éstos ha actuado como colocador, asegurador, director o asesor, o prestado valores a entidades vinculadas* | | X |
| *f. Se han adquirido valores o instrumentos financieros cuya contrapartida ha sido una entidad del grupo de la gestora o depositario, u otra IIC gestionada por la misma gestora u otra gestora del grupo* | | X |
| *g. Se han percibido ingresos por entidades del grupo de la gestora que tienen como origen comisiones o gastos satisfechos por la IIC* | X | |
| *h. Otras informaciones u operaciones vinculadas* | X | |

### 7. Loturadun eragiketak eta bestelako informazioak azaltzeko eranskina / *Anexo explicativo sobre operaciones vinculadas y otras informaciones*

Epearen amaieran, partaide batek partaidetza nabaria du fondoan:
1. Partaideak: %24,97 Ondarearekiko (209.616.756,85 euro).
Gordailuzainak saltzaile gisa jardun duen erosketa-eragiketen zenbatekoa 10.474.203.861,30 euro da, %7,36 beraz.
Gordailuzainak erosle gisa jardun duen salmenta-eragiketen zenbatekoa 0,23 euro da, %0,00 beraz.
Taldeko erakundeek jasotako bitartekotza-komisioak 89.361,70 eurokoak izan dira; hau da, %0,01.
Taldeko erakundeek jasotako analisietako gastuak 10.762,59 euro izan dira, hau da, %0,00
Funtsak euro-zenbatekoak lotutako beste operazio batzuk egin ditu 373.306,37 eurokoa izan da; hau da, %0,00
Eragiketa errepikakorrak edo garrantzia apaleko eragiketak egin dira (baimentze-prozesu sinplifikatuaren bitartez).
Oharra: Zerrendan ageri diren eragiketen epea txostenari dagokiona da, eta erreferentzia-epean IKEak izan duen batez besteko ondareari buruzkoak dira portzentajeak.

*Al cierre del periodo existe un partícipe que ostenta una participación significativa en el Fondo:*
*Partícipe 1: 24,97% s/ Patrimonio (209.616.756,85 euros).*
*El importe de las operaciones de compra en las que el depositario ha actuado como vendedor es 10.474.203.861,30 euros, suponiendo un 7,36%.*
*El importe de las operaciones de venta en las que el depositario ha actuado como comprador es 0,23 euros, suponiendo un 0,00%.*
*Las comisiones de intermediación percibidas por entidades del grupo han sido de 89.361,70 euros, lo que supone un 0,01%.*
*Los gastos de análisis percibidos por entidades del grupo han sido 10.762,59 euros, lo que supone un 0,00%.*
*El fondo ha realizado otras operaciones vinculadas por importe de 373.306,37 euros, suponiendo un 0,00%.*
*Además, se han realizado operaciones repetitivas o de escasa relevancia (sometidas a un proceso de autorización simplificado).*
*Nota: El período de las operaciones relacionadas corresponde al del Informe, y los porcentajes se refieren al Patrimonio Medio de la IIC en el periodo de referencia.*

**8. CNMVk eskatutako informazioa eta oharrak / *Información y advertencias a instancia de la CNMV***

Ez aplikagarria.

*No aplicable.*

**9. Aldizkako txostena azaltzeko eranskina / *Anexo explicativo del informe periódico***

1. MERKATUEN EGOERA ETA FUNTSAREN BILAKAERA.

a) Kudeatzailearen/sozietatearen ikuspegia merkatuen egoerari buruz.

Covid19 birusaren bilakaerak ekonomia eta merkatu finantzarioak baldintzatzen jarraitzen du. Ekonomien irekitze prozesua hasi ondoren, pandemiaren bigarren olatuak susperraldi prozesu horren jasangarritasunari buruzko zalantzak sortzen ditu. Halere, inbertsiogileak baikor daude berriz ere hainbat txertoren eraginkortasun datuak argitaratu izanagatik, horiek erabiltzeko emandako baimen medikoarengatik eta txertatze prozesua hasteagatik. Hori dela eta, krisiaren amaiera igartzen dute inbertsiogileek. Testuinguru honetan, agintari ekonomiko globalek, hala gobernuek nola banku zentralek, politika hedakorrekin jarraitzen dute, konfinamenduen ondoren hasitako susperraldiari eutsi nahian. Politika ekonomiko horiek familiak eta enpresa sareak finantzatzera bideratu dira, ekonomiak egiturazko kalteak izatea mugatzeko.

Banku zentralen kasuan, zorra (publikoa eta pribatua) era masiboan erosten jarraitzen dute, baldintza finantzarioak leundu ahal izateko ekonomia globalerako.

Merkatu finantzarioen bilakaerari dagokionez, seihilekoak jarraipena eman dio aurreko hilabeteetan hasitako susperraldiari. Susperraldi hori, hasieran, ekonomien pixkanakako irekitze prozesuak sustatu du eta indartu egin da, bereziki azaroan, hainbat txertoren eraginkortasun datuak argitaratu ondoren. Horrela, epealdi honetan, errenta aldakorreko indize nagusiek igoera handiekin amaitu dute (S&P 500 +% 21,15, Nasdaq 100 +% 26,89, Nikkei 225 +% 23,13, MSCI Emerging +% 29,76), baita indize europarrek ere (Eurostoxx 50 +% 9,85, Ibex 35 +% 11,65), Europan bigarren olatuaren eraginik handienak lastatu dituen arren.

Arrisku aktiboen barnean, zor korporatiboaren hobekuntza ere nabarmena izan da (142 op-ko hobekuntza Xover indizearen diferentzialean); bestalde, nabarmendu behar da, halaber, zor periferikoaren arrisku primaren hobekuntza (Espainia 30 op, Italia 60 op). Banku zentralen jardunak eragin argia dauka arrisku aktiboen zorraren zatian.

Zor publikoari dagokionez, urtearen lehengo erdian kurbek beheranzko mugimendu argia izan ondoren, seihilekoan portaera desberdina izan dugu Atlantikoaren bi aldeetan. Horrela, kurba amerikarrean, 10 urterako bonuaren BETa 25 op igo da eta urtea % 0,91n amaitu du, AEBren pizgarri fiskal eta zorpetze handiagoa aurreratuz. Kurba alemaniarrean, aitzitik, interes tasen jaitsierak ikusten jarraitzen dugu eta 10 urterako bonuaren BETak -% 0,57an itxi du.

Azkenik, dibisetan, seihilekoak bat egiten du gainerako aktiboetarako aipatutakoarekin; euroak hobera egin du nabarmenki babestzat jotzen diren dibisekin alderatuta (+% 8,74 dolarrarekiko, +% 4,09 yenarekiko).

b) Hartutako inbertsio erabaki orokorrak

Urtearen bigarren seihilekoan zehar, funtsak bere inbertsio maila altu mantendu du errenta aldakorrean, eta epealdia aurreko seihilabeteko burtsa merkatuekiko antzeko esposizioarekin amaitu du. Covid-19 pandemiaren ondorioz ziurgabetasunek maila globalean irauten duten arren, hobekuntza ekonomikoaren itxaropenak eta banku zentralen babesak eta gobernuen plan fiskalek eusten diote aipatutako errenta aldakorreko esposizio mailari.

Funtsak gaur egungo ingurunean emaitzetan hazteko gaitasuna duten baloreen aldeko posizionamendua mantendu du. Ildo horretan, nolabaiteko neutraltasun sektoriala mantendu da erreferentziako indizearekiko, sektore bakoitzaren barnean hazkunde baloreen aldeko apustua egin den arren.

Covid-19 birusak ekarriko dituen inpaktuei dagokienez, funtsak likidezia koltxoi gehigarria mantentzen du egoerari aurre egiteko eta, behar izanez gero, maniobrarako tartea izateko; horrela, tentsio handiagoko uneetan ez da posiziorik desegin behar izango eta merkatuan ez da likidezia gutxiago izango, zeren inpaktuek eragina izan dezakete eragiketetan.

c) Erreferentzia indizea.

Funtsaren errentagarritasuna (bi klaseetan) erreferentziako indizearena baino handiagoa izan da seihileko honetan, akzio hautapenaren eraginez nagusiki. Ildo horretan, Neste, Verbund eta Carl-Zeiss posizioak izan dira errentagarritasunari ekarpen handiena egin dioten iturriak. Aitzitik, LVMH, Daimler eta Safraneko pisu gutxitzea izan dira errentagarritasunaren gaitzesle handienak. Indize hau informatzeko edo alderatzeko erabiltzen da.

d) Ondarearen, partaideen, errentagarritasunaren eta IKEren gastuen bilakaera.

Epealdi honetan funtsaren partaide kopurua 68.665etik 74.115era pasatu da, 72.339 zorroko klasekoak dira eta 1.776 klase estandarrekoak. Halaber, funtsaren ondarea 115.306 mila euro igo da, eta epealdiaren amaieran 839.474 mila eurokoa da ondarea; 806.268 mila euro zorroko klasekoak dira eta 33.206 mila euro klase estandarrekoak.

Epealdiko errentagarritasun garbia % 10,56koa izan da klase estandarrean eta % 10,98koa zorroko klasean.

Egindako gastuek % 1,02ko eragina izan dute klase estandarren errentagarritasunean eta % 0,64koa zorroko klasean.

e) Funtsaren errendimendua kudeatzailearen gainerako funtsekin alderatuta.

Bi klaseen errentagarritasuna handiagoa izan da kudeatzailearen batez besteko errentagarritasuna (% 5,78) baino. Funtsaren inbertsio bokazio espezifikoa da errentagarritasun diferentzia horren arrazoia.

2. INBERTSIOEI BURUZKO INFORMAZIOA.

a) Epealdian egindako inbertsio zehatzak.

Funtsaren osaerari dagokionez, baloreetan, posizioa erabat murriztu da ABI, Airbus, Vivendi eta Unileverren, eta partaidetza hartu da Prosus, Just Eat, Flutter Entertainment eta Adyenen. Halaber, dagoen pisua areagotu da Linden.

b) Baloreen mailegu operatiba.

E/A

c) Operatiba deribatuetan eta aktiboak aldi baterako eskuratzea.

Tresna deribatuak erabili dira zorroa modu eraginkorragoan kudeatzeko. Horren emaitzak ondare aldaketen egoera orrian islatzen dira.

Tresna Deribatuetan irekitako posizioen helburua Eurostoxx-50 indizearekiko esposizioa irabaztea da.

d) Inbertsioei buruzko bestelako informazioa.

E/A

3. ERRENTAGARRITASUN HELBURU ZEHATZAREN BILAKAERA.

E/A

4. FUNTSAK BERE GAIN HARTUTAKO ARRISKUA.

Bi klaseen arrisku maila, hegakortasunaren bidez neurtua, % 17,38koa da epealdiaren amaieran, eta erreferentziako indizearena % 21,36koa.

5. ESKUBIDE POLITIKOAK BALIATZEA.

Sozietate Kudeatzaileak barne prozedura bat dauka Akziodunen Batzar Nagusietako asistentzia eta boto emateko prozesuak arautzeko, kudeatzen dituen IKEetako zorroetan sartzen diren balore guztientzat, honako termino hauetan: "SGIICak kudeatzen dituen IKE guztiak hartuta, kapital sozialaren % 1 bat baino gehiago hartzen duten sozietate espainiarrak direnean, SGIICak berak egikarituko ditu eskubide sozialak. Gainerako baloreentzat, nazional nahiz atzerrikoentzat, dagozkien buletinak beteko dira Administrazio Kontseiluko Presidentearengan delegatzeko eta sozietate bakoitzari helaraziko zaizkio, kasu bakoitzean egokien iritzen zaion prozeduraren bidez. Edozein kasutan, Akziodunen Batzar Nagusi bakoitzeko Gai Zerrendako puntuak aztertuko dira eta, Inbertsio Batzordeak egoki baderitzo, botoa emango da, Inbertsio Batzordearen ustez partaideen eskubideak ongien defendatzen dituen aukeraren alde."

Batzar Nagusi hauetarako deialdia jaso du IKEak: BBVA S.A., Iberdrola S.A., Banco Santander S.A., Amadeus S.A., Inditex S.A., ASML HOLDING N.V., ANHEUSER-BUSCH INBEV SA/NV, UCB, WOLTERS KLUWER, AKZO NOBEL N.V., ING GROEP NV, KONINKLIJKE DSM N.V., ENI SPA, KON.PHILIPS N.V., ENEL SPA, NESTE OYJ, MONCLER S.P.A., SYMRISE AG, DIASORIN SPA, VERBUND AG, RATIONAL AG, SARTORIUS AG, KNORR-BREMSE AG, NEMETSCHEK SE, LINDE AG, CARL ZEISS MEDITEC AG, UNILEVER NV, RECORDATI INDUSTRIA CHIMICA eta CTS EVENTIM AG. Kasu guztietan, partaidetza portzentajea % 1etik beherakoa izan arren, arreta handiz aztertu da boto eskubidea egikaritzeko aukera, eta, proposatutako gai-zerrendari objekziorik aurkitu ez zaionez, kasu bakoitzean zegokion delegazioa eman da boto eskubidea baliatzeko.

Era berean, Batzar Nagusi hauetarako deialdia jaso du IKEak: ZALANDO SE, eta gai zerrendako 2 puntutan aurkako botoa eman du.

6. CNMV INFORMAZIOA ETA OHARRAK.

E/A

7. FUNTS SOLIDARIOAREN ERAKUNDE ONURADUNAK ETA HORIEI EMANDAKO ZENBATEKOA.

E/A

8. ANALISI ZERBITZUTIK ERATORRITAKO KOSTUAK.

Funtsak inbertsioei buruzko analisi finantzarioen zerbitzutik eratorritako kostuak jasan ditu, modu esplizituan eta bitartekaritza komisioetatik bereizita. Analisi hori bitartekariekiko modu independente eta bereizian eskaintzen duten erakundeek eman dute, eta ekarpen positiboa egin du funtsaren zorroa osatzen duten balioei buruzko inbertsio erabakietan. Gainera, kudeatzaileak prozedura bat mantentzen du IKEren eragiketak gauzatzeko erabili diren bitartekarien hautaketan exekuzio onenaren printzipioa betetzeko.

IKEak ekitaldian zehar izan duen analisi zerbitzuaren gastua 99.292,97 eurokoa (% 0,01 ondarearen gain) izan da, eta hornitzaile nagusiak Mirabaud, JP Morgan, Morgan Stanley, Norbolsa eta Banco Santander izan dira. Hurrengo urterako aurrekontua 131.104,42 eurokoa da.

9. HELBURU BEREZIKO BANAKETAK (SIDE POCKETS).

E/A

10. MERKATU IKUSPEGIAK ETA FUNTSAREN AURREIKUSTEKO MODUKO JARDUKETA.

Urteko bigarren seihilekoan, pandemiaren bilakaerak ekonomiaren susperraldia eta merkatu finantzarioen portaera baldintzatzen jarraitu du. Ekonomiak maila globalean berriz irekitzeko eta berriz suspertzeko prozesua hasi ondoren, pandemiaren bigarren olatuak susperraldi horren jasangarritasunari buruzko zalantzak sortu ditu, bereziki Europan; izan ere, Europako egoera sanitarioak kezka sortzen du berriz ere. Agintari ekonomiko globalek, hala gobernuek nola banku zentralek, politika hedakorrak hartzen jarraitzen dute, aipatutako eragin negatiboa arintzeko eta susperraldi ekonomiko hobea izateko. Horrela, banku zentralak likidezia ari dira bermatzen merkatuari eta gobernuek, bestalde, pandemiaren eragin ekonomikoa murrizteko gastu plan handiak iragarri dituzte. Bestalde, azaroan hainbat txertoren eraginkortasun datuak argitaratzea behin betiko babesa izan da, krisiaren amaiera aurreratzeko eta burtsa merkatuei indarra eman die maila globalean. Txerto horien onespen medikoak eta txertaketa prozesua hasteak inbertsiogileen konfiantza eta baikortasuna indartu ditu ekitaldi berriari begira.

Testuinguru horretan, Europako errenta aldakorrak portaera pixka bat ahulagoa izan du pareko amerikarrak baino. Sektoreen osaera desberdinak eta udaren ondoren pandemiak gogorrago eragin izanak indize europarren kontrako pisua ekarri dute.

Bestalde, hurrengo hilabeteetan, litekeena da berriz ere hegakortasunaren pasarte nabarmenak izatea, pandemiaren bilakaeraren eta haren balizko berragertzeen arabera, nahiz eta martxan egon txertatze prozesua. Ekonomiaren ikuspuntutik, espero dugu ekonomia berriz irekitzearen eta komertzioa berriz aktibatzen ondorioz, adierazle makroekonomikoetan hobekuntza ikusten jarraitzea, baldin eta ez bagara itzultzen konfinamendu orokorreko egoera batera. Enpresei dagokienez, datozen hiruhilekoetako emaitzek adierazi beharko lukete pandemiaren inpaktu handiak atzean utzi direla. Gainera, politikan, ez litzateke tentsio handirik egon behar AEBko hauteskunde prozesua amaitu ondoren eta Brexitari buruzko akordioa lortu ostean. Horregatik, errenta aldakorrarekiko esposizio maila altuak mantentzearen alde egiten dugu, zeren uste dugu hartutako neurriek suspertze ekonomiko azkar samarra ekarriko dutela.

1. SITUACION DE LOS MERCADOS Y EVOLUCIÓN DEL FONDO.

a) Visión de la gestora/sociedad sobre la situación de los mercados.

La evolución del virus Covid19 sigue condicionando la economía y los mercados financieros. Tras comenzar el proceso de reapertura de las economías, la segunda ola de la pandemia arroja dudas sobre las sostenibilidad de dicho proceso de recuperación. Sin embargo, la publicación de los datos de eficacia de diversas vacunas, la posterior autorización médica para su uso y el inicio del proceso de vacunación, han devuelto el optimismo a los inversores que ya vislumbran el final de la crisis. En este entorno, las autoridades económicas a nivel global, tanto gobiernos como bancos centrales, continúan adoptando políticas expansivas, tratando de apuntalar la recuperación iniciada tras los confinamientos. Dichas políticas económicas van encaminadas a proveer de financiación a las familias y al tejido empresarial, tratando de limitar los daños estructurales a la economía.

En el caso de los bancos centrales, continúan con las compras masivas de deuda (pública y privada), suavizando las condiciones financieras para la economía en su globalidad.

Pasando a la evolución de los mercados financieros, el semestre ha dado continuidad a la recuperación iniciada en los meses precedentes. Dicha recuperación ha estado impulsada inicialmente por el paulatino proceso de apertura de las economías y ha sido refrendada especialmente durante el mes de noviembre tras la publicación de los datos de eficacia de varias vacunas. Así, en el período, los índices principales de renta variable han terminado con fuertes subidas (S&P 500 +21,15%, Nasdaq 100 +26,89%, Nikkei 225 +23,13%, MSCI Emerging +29,76%), incluidos los índices europeos (Eurostoxx 50 +9,85%, Ibex 35 +11,65%), a pesar de estar éstos lastrados por el mayor impacto de la segunda ola en Europa.

Dentro de los activos de riesgo, la mejoría de la deuda corporativa ha sido también destacable (142 pb de mejoría en el diferencial del índice Xover), siendo también reseñable, por otra parte, la mejoría de la prima de riesgo de la deuda periférica (España 30 pb, Italia 60 pb). La actuación de los bancos centrales tiene claro efecto en la parte de deuda de los activos de riesgo.

En cuanto a la deuda pública, tras el claro movimiento de las curvas hacia la baja en la primera mitad del año, durante el semestre hemos tenido un comportamiento dispar a ambos lados del Atlántico. Así, en la curva americana, la TIR del bono a 10 años rebota 25 pb y cierra el año en 0,91% anticipando un mayor estímulo fiscal y endeudamiento en EEUU. En la curva alemana por el contrario, continuamos viendo bajadas de tipos y la TIR del bono a 10 años cierra en niveles de -0,57%.

Por último, a nivel de divisas, el semestre ha ido en línea con lo comentado para el resto de activos, con clara mejoría del euro frente a las divisas consideradas como refugio (+8,74% frente al dólar, +4,09% frente al yen).

b) Decisiones generales de inversión adoptadas.

A lo largo del segundo semestre del año, el fondo ha mantenido su nivel de inversión en renta variable en nivel elevados, finalizando el periodo con una exposición a los mercados bursátiles similar a la del semestre anterior. A pesar de las incertidumbres que persisten a nivel global como consecuencia de la pandemia del Covid-19, el apoyo de los bancos centrales y los planes fiscales de los gobiernos soportan el mantenimiento del citado grado de exposición a renta variable.

El fondo ha mantenido su posicionamiento favorable a valores con capacidad de crecer en resultados en el entorno actual. En este sentido, se ha mantenido una cierta neutralidad sectorial respecto al índice de referencia, si bien se ha apostado dentro de cada sector por valores de crecimiento.

En relación a los impactos derivados del Covid-19, el fondo mantiene de un colchón adicional de liquidez para poder capear la situación y disponer de margen de maniobra en caso de necesidad, sin tener que deshacer posiciones en momentos de mayor tensión y menor liquidez en mercado, que podrían impactar en la ejecución de las operaciones.

c) Índice de referencia.

La rentabilidad del fondo en el semestre (ambas clases) ha sido superior a la de su índice de referencia, debido principalmente a la selección de acciones. En este sentido, la posición en Neste, Verbund y Carl-Zeiss han sido las principales fuentes de aportación de rentabilidad. Por el contrario, la infraponderación en LVMH, Daimler y Safran han sido los mayores detractores de rentabilidad durante el periodo. Este índice se utiliza en términos meramente informativos o comparativos.

d) Evolución del Patrimonio, participes, rentabilidad y gastos de la IIC.

En este periodo, el número de partícipes del fondo ha pasado de 68.665 a 74.115, correspondiendo 72.339 a la clase cartera y 1.776 a la clase estándar. Asimismo, el patrimonio del fondo ha aumentado en 115.306 miles de euros, siendo el patrimonio al final del periodo de 839.474 miles de euros, correspondiendo 806.268 miles de euros a la clase cartera y 33.206 miles de euros a la clase estándar.

La rentabilidad neta en el periodo ha sido del 10,56% para la clase estándar y del 10,98% para la clase cartera.

Los gastos incurridos han supuesto un impacto en la rentabilidad de un 1,02% para la clase estándar y de un 0,64% para la clase cartera.

e) Rendimiento del fondo en comparación con el resto de fondos de la gestora.

La rentabilidad de ambas clases ha sido superior a la de la media de la gestora (5,78%). La diferencia de rentabilidad se explica por la vocación inversora específica del fondo.

2. INFORMACION SOBRE LAS INVERSIONES.

a) Inversiones concretas realizadas durante el periodo.

En relación a la composición del fondo, a nivel de valores, se ha reducido totalmente la posición en ABI, Airbus, Vivendi y Unilever y se ha tomado participación en Prosus, Just Eat, Flutter Entertainment y Adyen. Así mismo, se ha incrementado el peso existente en Linde.

b) Operativa de préstamo de valores.

N/A

c) Operativa en derivados y adquisición temporal de activos.

Se han empleado instrumentos derivados con el objeto de gestionar de forma más eficaz la cartera, cuyos resultados se reflejan en el Estado de variación patrimonial.

El objetivo de las posiciones abiertas en Instrumentos Derivados es ganar exposición al índice Eurostoxx-50.

d) Otra información sobre inversiones.

N/A

3. EVOLUCION DEL OBJETIVO CONCRETO DE RENTABILIDAD.

N/A

4. RIESGO ASUMIDO POR EL FONDO.

El nivel de riesgo de ambas clases, medido por la volatilidad, es a cierre del periodo de 17,38% frente al 21,36% del índice de referencia.

5. EJERCICIO DERECHOS POLITICOS.

La Sociedad Gestora dispone de un procedimiento interno que regula los procesos de asistencia y voto en las Juntas Generales de Accionistas para todos los valores integrados en las carteras de las IIC gestionadas en los siguientes términos: "para todas las sociedades españolas en las que el conjunto de IIC que gestione la SGIIC, posean más del 1% de su Capital Social, los derechos políticos serán ejercidos por la propia SGIIC. Para el resto de valores nacionales como para los extranjeros, se cumplimentarán los correspondientes boletines delegando en el Presidente del Consejo de Administración y haciéndolos llegar a cada sociedad por el procedimiento que en cada caso se considere más adecuado. En todo caso, se revisarán los puntos del Orden del Día de cada Junta General de Accionistas y, en caso de que el Comité de Inversiones lo considere necesario, se emitirá voto en la línea que defienda mejor los derechos de los partícipes, a juicio del Comité de inversiones".

La IIC ha sido convocada a las Juntas Generales de BBVA S.A., Iberdrola S.A., Banco Santander S.A., Amadeus S.A., Inditex S.A., ASML HOLDING N.V., ANHEUSER-BUSCH INBEV SA/NV, UCB, WOLTERS KLUWER, AKZO NOBEL N.V., ING GROEP NV, KONINKLIJKE DSM N.V., ENI SPA, KON.PHILIPS N.V., ENEL SPA, NESTE OYJ, MONCLER S.P.A., SYMRISE AG, DIASORIN SPA, VERBUND AG, RATIONAL AG, SARTORIUS AG, KNORR-BREMSE AG, NEMETSCHEK SE, LINDE AG, CARL ZEISS MEDITEC AG, UNILEVER NV, RECORDATI INDUSTRIA CHIMICA y CTS EVENTIM AG. En todos los casos, aun siendo el porcentaje de participación inferior al 1%, se ha estudiado cuidadosamente el ejercicio del derecho de voto y, no habiéndose encontrado motivo alguno que objetar al Orden del día propuesto, siendo éste favorable, se ha emitido la correspondiente delegación para el ejercicio del derecho a voto.

Asimismo, la IIC ha sido convocada a la Junta General de ZALANDO SE., emitiendo voto en contra de 2 puntos del Orden del Día.

6. INFORMACION Y ADVERTENCIAS CNMV.

N/A

7. ENTIDADES BENEFICIARIAS DEL FONDO SOLIDARIO E IMPORTE CEDIDO A LAS MISMAS.

N/A

8. COSTES DERIVADOS DEL SERVICIO DE ANALISIS.

El fondo ha soportado costes derivados del servicio de análisis financiero sobre inversiones de forma explícita y separada a las comisiones de intermediación. Dicho análisis ha sido prestado por entidades que proporcionan el análisis de manera independiente y separada respecto de los intermediarios y ha contribuido positivamente en las decisiones de inversión sobre los valores que componen la cartera del fondo. Adicionalmente, la Gestora mantiene un procedimiento a los efectos de cumplir con el principio de mejor ejecución en la selección de intermediarios a través de los cuales se han ejecutado las operaciones de la IIC.

Los gastos correspondientes al servicio de análisis soportados por la IIC durante el ejercicio han sido 99.292,97 euros (0,01% sobre patrimonio), siendo los principales proveedores Mirabaud, JP Morgan, Morgan Stanley, Norbolsa y Banco Santander. El importe presupuestado para el próximo año es 131.104,42 euros.

9. COMPARTIMENTOS DE PROPOSITO ESPECIAL (SIDE POCKETS).

N/A

10. PERSPECTIVAS DE MERCADO Y ACTUACION PREVISIBLE DEL FONDO.

Durante el segundo semestre del año, la evolución de la pandemia ha seguido condicionando la recuperación de la economía y el comportamiento de los mercados financieros. Tras comenzar el proceso de reapertura y reactivación de las economías a nivel global, la segunda ola de la pandemia ha arrojado dudas sobre la sostenibilidad de dicho proceso de recuperación, especialmente en Europa, donde la situación sanitaria vuelve a preocupar. Las autoridades económicas a nivel global, tanto gobiernos como bancos centrales, continúan adoptando políticas expansivas, para mitigar el citado impacto negativo y para propiciar una mejor recuperación económica. Así, los bancos centrales están garantizando liquidez al mercado y los gobiernos por su parte, han anunciado grandes planes de gasto que mitiguen el impacto económico de la pandemia. Por otro lado, la publicación de los datos de eficacia de diversas vacunas durante el mes de noviembre, ha supuesto el respaldo definitivo para anticipar el final de la crisis y ha catapultado a los mercados bursátiles a nivel global. La aprobación médica de dichas vacunas y el comienzo del proceso de vacunación, han reforzado la confianza y el optimismo de los inversores de cara al nuevo ejercicio.

En este entorno, la renta variable europea ha mostrado un comportamiento más débil que su par americana. La diferente composición sectorial y la mayor dureza con la que ha golpeado la pandemia tras el verano, ha pesado en contra de los índices europeos.

Por otro lado, de cara a los próximos meses, es probable que volvamos a ver episodios relevantes de volatilidad en función del devenir de la pandemia y de los posibles rebrotes, a pesar de estar en marcha el proceso de vacunación. Desde un punto de vista económico, esperamos seguir viendo una mejora en los indicadores macroeconómicos derivada de la reapertura de las economías y la reactivación del comercio, siempre y cuando no volvamos a una situación de confinamiento generalizado. A nivel empresarial, los resultados de los próximos trimestres deberían poner de manifiesto que se han dejado atrás los grandes impactos de la pandemia. Adicionalmente, a nivel político no debería haber grandes tensiones una vez finalizado el proceso electoral en EEUU y tras el acuerdo sobre el Brexit. Por ello, abogamos por mantener en niveles elevados la exposición a renta variable ya que confiamos en que las medidas adoptadas permitan una recuperación económica razonablemente rápida.

## 10. Ordainketa-politikari buruzko informazioa / *Información de la Politica de Remuneracion*

Kutxabank Gestión S.G.I.I.C, S.A.U.-en ordainsari-politika

Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko Legearen 46 bis.1 artikuluari jarraiki, KUTXABANK GESTION S.G.I.I.C., S.A.U. sozietateak adierazten du kudeaketa-sozietateak bere langileei 2020an emandako ordainsarien guztizkoa 2.802 mila eurokoa izan dela, honela banakatuta: 2.648 mila euro ordainsari finkoetan eta 154 mila euro ordainsari aldakorretan. Onuradunen kopurua 60 eta 54koa izan da, hurrenez hurren. Ez dago Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Sozietate Kudeatzaileak (SGIIC) kudeaketaren konpentsazioagatik lortutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IIC) etekinen partaidetzetan oinarrituriko ordainsaririk. Identifikaturiko kolektiboari dagokionez, lau langile gehiago ditu orain, CNMVtik jasotako jarraibideak betez: bi arduradun gehiago inbertsio-taldean eta beste bi gehiago kontrol-taldean. Beraz, kontuan izanik kolektibo horren jarduerak eragin materiala izan dezakeela sozietatearen arrisku-profilean, 810 mila eurokoa da ordainsarien zenbateko erantsia. Horietatik, 453 mila euro lau goi-karguri dagozkie (398 mila ordainsari finko gisa eta 55 mila euro ordainsari aldakor gisa), eta 357 mila euro bost langileri (337 mila euro ordainsari finko gisa eta 20 mila euro ordainsari aldakor gisa).

Ordainsarien kalkulua antzera egiten da langile-talde guztietan. Ordainsari finkoa KUTXABANK GESTION S.G.I.I.C., S.A.U.ren lan-hitzarmenean arautua dago, eta, dagokion kasuan, goi-kargu batzuekin sinatutako banakako kontratuetan. Ordainsari aldakorra, berriz, urtero zehazten da. Dena den, epe ertain edo luzeko adierazleekin loturiko urte anitzeko ordainsari-planak ere ezar daitezke. Hauek dira ordainsari aldakorreko urteko planen funtzionamendu-arauak: ordainsari aldakorraren guztizkoak ez du gainditu behar guztizko soldata-masaren % 20a; maila indibidualean, ez du gainditu behar ordainsari finkoaren % 25a, eta, halaber, gerta daiteke baliogabea izatea; kontrol-funtzioak betetzen dituzten langileen kasuan, negozio-adierazleen gehienezko pisua zehazten da. Ordainsari aldakorra kalkulatzeko orduan, departamentu mailako irizpideak nahiz egindako lanaren ebaluazio indibiduala har daitezke kontuan. Irizpide finantzarioak (etekina, komisioen eboluzio diferentziala, gastu orokorrak, “benchmark”-a, “ranking”-a) eta ez-finantzarioak (merkaturatzailearen balorazioa, departamentuko plana, prozeduren kalitatea, kontrol-giroa) aplikatzen dira, eta haztapen bereizia zehazten da departamentu bakoitzeko, haren garrantzia erlatiboa eta funtzioaren mugak ☐baldin badaude☐ kontuan hartuta. Urtero, ordainsari aldakorren proposamena aztertzen du Sozietatearen Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak, eta Administrazio Kontseiluaren aurrean aurkezten da, onar dezan.

Erakundearen Administrazio Kontseiluak urtero egiten duen ebaluazio zentral eta independentearen barruan, aldiro-aldiro eguneratu egiten da KUTXABANK GESTION S.G.I.I.C., S.A.U.ren Ordainsari Politikaren Esparrua, izandako barne-aldaketetara eta agintari eskudunek ezarritako arau-baldintzetara egokitzeko. Hain zuzen, 2020an, CNMVk, ikuskapena egin ondoren, zenbait jarraibide eman zituen, eta horien arabera egokitu zen.

En cumplimiento del artículo 46bis.1 de la Ley de Instituciones de Inversión Colectiva, KUTXABANK GESTION S.G.I.I.C., S.A.U. declara que la cuantía total de la remuneración abonada por la sociedad gestora a su personal en 2020 ha sido de 2.802 miles de euros, desglosada en 2.648 miles de euros de remuneración fija y 154 miles de euros de remuneración variable, siendo el número de beneficiarios 60 y 54, respectivamente. No existen remuneraciones basadas en participación en los beneficios de las IIC obtenidas por la SGIIC como compensación por la gestión. En lo que se refiere al colectivo identificado, éste ha incrementado su composición en cuatro empleados, según instrucciones recibidas de CNMV: dos personas responsables adicionales del equipo de Inversiones y otras dos del equipo de Control. Así, en relación a este colectivo identificado, cuya actuación podría tener una incidencia material en el perfil de riesgo de la sociedad, el importe agregado de la remuneración asciende a 810 miles de euros, correspondiendo 453 miles de euros a cuatro altos cargos (398 miles de euros de remuneración fija y 55 miles de euros de remuneración variable) y 357 miles de euros a cinco empleados (337 miles de euros de remuneración fija y 20 miles de euros de remuneración variable).

El cálculo de la retribución es análogo para los distintos grupos de empleados. La retribución fija está regulada en el acuerdo laboral de KUTXABANK GESTION S.G.I.I.C., S.A.U., y, en su caso, en los contratos individuales firmados con algunos altos cargos. La retribución variable tiene carácter anual, si bien existe la posibilidad de establecer planes de retribución plurianual, ligados a indicadores a medio/largo plazo. Las reglas de funcionamiento de los planes anuales de retribución variable son: la remuneración variable total no supera el 20% de la masa salarial total; a nivel individual, no puede superar el 25% de la remuneración fija, pudiendo asimismo ser nula y, para las personas que ejercen funciones de control, existe un máximo de peso en los indicadores de negocio. Respecto del método de cálculo de la remuneración variable se atiende tanto a criterios a nivel de departamento como a la evaluación individual del desempeño. Los criterios aplicados son financieros (beneficio, evolución diferencial comisiones, gastos generales, benchmark, ranking) y no financieros (valoración comercializador, plan departamento, calidad procedimientos, ambiente de control), estableciendo una ponderación diferenciada para cada departamento conforme a su importancia relativa y a las limitaciones de la función, en su caso. Anualmente, la propuesta de remuneración variable se analiza por la Comisión de Nombramientos y Retribuciones de la sociedad y se presenta para su aprobación por el Consejo de Administración.

Como parte de la evaluación anual central e independiente que realiza el Consejo de Administración de la Entidad, el “Marco de Política Retributiva de KUTXABANK GESTION S.G.I.I.C., S.A.U.” se actualiza regularmente, para su adecuación a los cambios internos que se vayan produciendo y a los requerimientos normativos establecidos por las autoridades competentes. Así, en 2020, se adecuó su redacción a las indicaciones recibidas por CNMV en el ejercicio de su acción supervisora.

## 11. Erregelamenduari buruzko informazioa / *Información del Reglamento*

Denboraldian zehar, IKEk aldiberekoen eragiketak egin ditu zor publikoaren gain, egun bat eta aste bat arteko epemugarekin, Cecabank SA kontrako alderdiarekin, IKEren likidezia kudeatzeko, guztira 10.474.204 euroko zenbatekoarekin eta -217.010,03 euroko etekinarekin.
Denboraldiaren amaieran, IKEk aldiberekoen eragiketa bat du kontratatuta gordailuzainarekin zor publikoaren gain, egun bat eta aste bat arteko epemugarekin, 100.000 euroko zenbatekoarekin.

*Durante el periodo la IIC ha realizado operaciones de simultáneas con un vencimiento entre un día y una semana, sobre deuda pública, con la contraparte Cecabank SA para la gestión de la*

*liquidez de la IIC por un importe efectivo total de 10.474.204 miles de euros y un rendimiento de -217.010,03 euros.*

*A cierre de periodo la IIC tiene contratado con el depositario una operación de simultáneas con un vencimiento entre un día y una semana sobre deuda pública por un importe efectivo de 100.000 miles de euros.*